

TEKNOLOGIA AURRERA ETA GIZARTEA ATZERA



AURKIBIDEA

GAIA	2
ABSTRACT	2
HIPOTESIA	2
MARKO TEORIKOA	3
METODOLOGIA	10
GALDETEGIAREN EMAITZAK	11
ONDORIOAK	15
HIPOTESIA BERRESTEN	16
BIBLIOGRAFIA	17

GAIA

Gaur egungo teknologia berriak gizartean sortzen ari zaizkigun arazoak eta etorkizunari begira zer gertatu daitekeen.

LABURPENA

Gure ikerketa lanean gaur egun sortzen ari diren teknologia berriek gure bizitzetan izango duten inpaktua aztertuko dugu. Gai hau aztertzea, hau da, gaur egungo teknologia berriek gizartean sortzen dizkiguten arazoak eta etorkizunari begira zer gertatuko den aztertzea, ezinbestekoa dela uste dugu, jadanik gailu hauen garapena nabarmentzen hasi delako eta egunerokoan desberdintasunak eta arazo larriak ikusten hasi garelako. Honekin batera, etorkizunean nola bukatu dezakegun aurreikustea eta jendearen ikuspuntua jakitea ere garrantzi handikoa iruditzen zaigu. Beraz, lan honen bitartez lortu nahi dugu, teknologia berrien arriskuei eta horiek dakartzaten arazoei buruz pertsonak ohartaraztea.

ABSTRACT

In our research work, we will analyze the impact of new emerging technologies on our lives. The analysis of this issue, (the social problems posed by the new technologies today and of what is going to happen in the future) is essential because the development of these devices has already begun to be highlighted and we have started to see inequalities and serious problems in everyday life. We also think that it is important to foresee how we can end up in the future and know people's views. The aim of this work is to raise awareness of the risks of new technologies and their problems.


HIPOTESIA

Teknologia berrien erabilera masiboak gizartean atzerapena ekarriko du.

MARKO TEORIKOA

Marko teorikoak ikerketa, analisi edo proiektu batean, oinarritzat hartzen diren kontzeptuen, adibideen, teorien, hipotesien eta aurreko ikerketen multzoak dira. Hau da, lana gauzatzen laguntzen diguten aurrekariak, aurretiko ikerketak eta gogoeta teorikoak dira. Horregatik, gure gaia kontuan hartuz, gure marko teorikoan hainbat kontzeptu definitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Hasteko, aurretik laburpenean aipatu dugun bezala, guk teknologiaren bilakaerari buruz hitz egingo dugu; zehazki, bere bilakaera negatiboari eta horrek gure bizitzan duen inpaktu edo ondorio negatiboari buruz. Baina, horretarako, lehenik teknologia zer den jakin beharko dugu, jende askok teknologiari buruzko definizio edo ideia oker bat duelako.



Gehienetan, jendeak teknologia internetarekin, sare sozialekin, mugikorrarekin edo beste hainbat gailu elektronikorekin lotuta dagoen zerbait soilik dela uste du. Baina, teknologia beste hainbat gairekin lotuta dagoen esparru askoz handiago bat da. Teknologiari buruz hitz egiten dugunean, espezie batek modu sistematiko eta arrazionalen behar edo arazo praktikoei erantzuteko ebazpen teknikoak deskribatu, azaldu, diseinatu eta aplikatzea ahalbidetzen duen zientifikoki antolatutako jakintza-multzoari deritzogu.

TEKNOLOGIAREN HISTORIA

Teknologiaren historia orain dela 2,5 milioi urte hasi zela esan dezakegu, gizakia bere bizi-kalitatea hobetzeko objektuak egiten hasi zenean. Lehenengo hominidoek hasieran gorputz osoa ilez estalia zuten, baina, eboluzionatuz joan ziren heinean, ilea galtzen hasi ziren eta neguan hotza zuten. Baina, haien beharrak asetzeko modua aurkitzeko gai izan ziren; hotza saihesteko, jateko ehizatzen zituzten animalien larruz estaltzen hasi ziren.

Eta horrela jarraituz, ondoren, beste hainbat objektu asmatu zituzten behar berriak agertzen joan zitzaizkien heinean. Landare-zuntzekin berokiak egin zitzaizketela ikusi eta arropa asmatu zuten; oinutsik ibiltzeaz nazkatu zirenean, zapatak asmatu zituzten; garrasi egiteaz nekatu zirenean, telefonoa asmatu zuten; hatzak kandlekin erre zituztenean, argi elektrikoa asmatu zuten eta eskuz kontatzeaz nekatu ondoren, kalkulagailua asmatu zuten.



2001: A Space Odyssey filmeko (Stanley Kubrick, 1968) eszena honetan tximu batek hezur pusketa bat besteei hiltzeko arma bat bilakatu zuela ikus dezakegu. Hau teknologiaren lehen erabileretako bat dela esan genezake, arazo praktiko bati, erantzun bat eman ziolako. Hau da, besteen erasoak arazoa izango ziren, eta hezurra, irabazteko edo kontra egiteko soluzioa bilakatu zuen.

→ [2001: Odisea al espacio](#)

Historiaurrea lehen gizakia agertu zenetik idazkera asmatu arte igarotako garaiari deritzo. Garai hartan, lehenengo gizakiak nomadak ziren eta ehizara eta fruituen bilketara jarduntzen ziren eta horregatik, aurrerapen teknologikoak biziraupenera bideratuta zeuden. Lehen iraultza teknologikoa Neolitoan gertatu zen duela 10.000 urte inguru, hau da, gizakiak nomada izatetik sedentario izatera igaro zirenean lehen nekazaritza-teknikak garatuz.

Antzinaroan gorpila asmatu zuten. Horrez gain Mesopotamian, sumertarrek idazkera kuneiformea (arrasto arkeologikoak dituen idazkera motarik zaharrena) asmatu zuten, eta Egipton, eraikuntzetan harri naturala sartzen hasi ziren. Aro horren amaieran, garapen teknologikoak behera egin zuten eta historialariek esklabismoaren eraginez gertatu zela diote, esklaboak eskulan merkeak zirenez, ez zuten beharrezkoa ikusten berrikuntzak sortzea eskulanak eta lan errepikakorrak errazteko.

Erdi aroan Txinan arrakasta teknologiko ugari ekarri zituen gizarte bat eraiki zuten. Europan, XI. mendetik aurrera, berpizte intelektuala gertatu zen, unibertsitateak eta eskola katedradunak sortzerakoan. Hala ere, aro honetan nabarmendu ziren hiru berrikuntza teknologikoak papera, inprenta eta bolbora izan ziren.

Aro modernoan aurkikuntza geografiko handiak nabarmendu ziren, hala nola Amerikaren aurkikuntza, Errenazimentua, Erreforma protestantea eta Kontrarreforma. Garai honetan asmakizun asko agertzen dira baina lau berrikuntza teknologiko nabarmenak dira besteen gainetik: iparrorratza, kartografia, su-armak eta "El galeon" (bela ontziratze bat)

Iraultza industrialean, lehen industria-iraultza Ingalaterran sortu zen, XVIII. mendearen amaieran, lurrun-makinaren asmakuntzarekin. Lehen aldiz, gizakiak nekazaritza edo industria-lanak egin zitzaizkien pertsonen edo animalien esfortzua

alde batera utziz. Garai hartan, asmakizun eta berrikuntza teknologiko ugari agertu ziren, hala nola telefonoa, bonbilla, siderurgia, tximistorratza, telegrafoa, josteko makina eta ibilgailu motordunak.

XX. mendean Lehen hegazkinak agertzen dira, elektrizitatea hirietara eta lantegietara iristen da, lehen ordenagailuak 1980. urtearen inguruan sortzea ahalbidetzen duen elektronika sortzen da, teknologia nuklearra sortu eta garatzen da, medikuntzak aurrerapen handiak izaten ditu gizakiaren bizi-kalitatea hobetzearen inguruan, satelite artifizialak orbitan jartzen dituen teknologia espaziala sortu eta garatzen da (1957), telefono bidezko komunikazio-sare handiak garatzen dira (1967) eta interneta eta posta elektronikoa agertzen da. Garai honetako Asmakizun garrantzitsuenak PC-a, interneta eta GPS-a dira.

TEKNOLOGIA MOTEN SAILKAPENA

Teknologia motei dagokienez, esan dezakegu hainbat motatakoak izan daitezkeela: teknologia garbia eta materialetakoa, teknologia bigun eta gogorrak, Teknologia malgua eta finkoa eta Eragiketa-teknologia, ekipoa eta produktua

- **Teknologia garbia eta materialetakoa:**

- Teknologia garbiarekin lan egiten dela esaten da ingurumenak eskaintzen dizkigun baliabideak neurrian erabiltzen direnean.
- Teknologia garbiarekin lan egitean ez dira kutsatu dezaketen faktorerik erabiltzen eta haien ordeaz energia eolikoa, eguzki-argia eta antzeko beste sistema batzuk erabiltzen dira.
- Teknologia materialaren barruan teknologia elektronika, nuklearra eta kimikoa sartuko lirateke.

- **Teknologia bigun eta gogorrak**

- Teknologia bat ukigarria ez denean, baizik eta administrazioarekin, kudeaketarekin edo plangintzarekin lotuta dagoenean, teknologia bigunez ari gara.
- Teknologia gogorra berriz, materialen eta beste elementu batzuen ekoizpenean parte hartzen duten teknologia teknikoen taldea da.

- **Teknologia malgua eta finkoa**

- Teknologia finkoek ez dute aldaketarik izaten, kasu zehatzetan izan ezik; esaterako, errendimendua hobetzeko aukera dagoenean.

- Teknologia malgua aldiz hedagarria da, eta materialak, ezagutzak eta lan-tresna guztiak batzen ditu.
- **Eragiketa-teknologia, ekipoa eta produktua**
 - Eragiketa-teknologia teknikak eta aurrerapen teknologikoen denboran aurrera egin ahala lortzen dena da.
 - Ekipo-teknologiak hainbat fabrikazio-, ikerketa- edo garapen-industriatan erabiltzen diren prozedura teknologikoak biltzen ditu.
 - Produktu-teknologiak produktu jakin bat sortzeko ahalbidetzen duten ezagutzak eta tresnak konbinatzen ditu.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Esan bezala, gaur egun, teknologiaz inguraturik gaude, nonahi ikusi dezakegu, eta honen garapena geroz eta azkarragoa dela garbi ikusten da. Horren harira, urtetik urtera teknologia berriak ateratzen dituzte eta segidan orain dela denbora gutxi atera diren asmakizunak azalduko dizkizuegu:

- **5G**

Interneten nabigatzeko interneteko abiadura da. Bere abiadura hasiera batean 50Mbit/s eta 2Gbit/s artean dago baina 100Gbit/s arte iritsi daiteke. Guztiok ezagutzen dugun 4G baino mila aldiz azkarrago doa.

Honen bitartez, komunikatzeko modua aldatuko da, informazioaren autobideen gaitasuna biderkatuko da eta eguneroko objektuak, denbora errealean konektatu ahal izatea ahalbidetuko da.

Hala ere, honek sortzen duen erradiazioak hainbat sintoma sortzen ditu; hala nola, nekea, loaren alterazioa, kontzentrazio falta, epe laburrean oroimena galtzea, nahasmena, ikasmen arazoak, depresioa eta antsietatea, akufenoak (belarriko burrunba), larruazaleko arazoak eta endokrinoak, eta bereziki nerbio-sistema zentralakoak.

- **Mugikorrak**

Haririk gabekoa ez ezik seinale elektriko bidez soinuak urrutitik transmititzeko aukera ematen duen gailu ere bada.

Honen bidez alboan ez duzun jendearekin komunikatu daiteke, haieie deituz, idatziz ala argakiak bidaliz. Bestalde, aisialdirako gailu bat dela esan daiteke,

bertan jokuak, egunerokoan behar ditugun app-ak eta sare sozialak eduki ditzakezulako. Gainera, informazioa bilatu daiteke mugikorrak barneratuta dauzkan nagibatzailletan (Safari, Google, Yahoo, Firefox...) eta horrela, momentuko berriak, bideoak, iragarkiak eta funtsezko informazioa eduki daiteke eskuetan segundo gutxitan.

Hala ere, aipatutako seinale elektriko horiek uhinekin batera, gudan arazoak sortzen ditu. Hala nola; mina eta zurruntasuna eskuetan eta hatzetan, lepoko mina, estresa areagotu, buruko mina, insomnia eta horretaz gainera, gudan menpekotasuna sortzen du.

- **Adimen artifiziala**

Adimen artifiziala izaki bizidunen prozesu arrazional eta deduktiboak burutzeko makina batek duen gaitasuna da.

Honen helburu nagusia makinek gaurdaino gizakiek soilik burutu ahal izan dituzten betebeharrak bete ahal izatea da, baita izaki bizidunen eta bereziki gizakien garunaren eta bere funtzionamenduaren ulermena areagotzea ere.

Honek sortzen dituen hainbat arazo izango lirateke kostua eta ezarpen-denbora, kualifikazio eza, langabezi tasa handitzea, moral eza eta sormenik ez egotea.

TEKNOLOGIA BERRIEKIN LOTUTAKO ARAZO ETA PATOLOGIAK

Teknologiak hainbat arazo sortzen dizkigu gure eguneroko bizitzan. Pertsona gehienek gehiegi erabiltzen dute teknologia modu desegoki batean . Arazoak dituzten pertsonak, teknologia behar dute bere egunerokoan, beraz, teknologia mota hau behar beharrezkoa da, adibidez paralitikoetan gurpildun aulki elektrikoa. Beste teknologia motak arriskutsuak izan daitezke eta ondorengo arazoak sor ditzake.

Lehen arazoa adikzioa da, bereziki bideo-jokoen adikzioa. Dependentsia bat sortzen dizu eta hori oso zaila da kentzea. Marc Massip psikologoaren ustez, adikzioa koarentenak areagotu zuen, izan ere, ez zen batere osasuntsua umeak sei ordu baino gehiago egotea pantaila bati begira..

Artikuluaren agertzen den bigarren arazoa nomofobia da. Fobia hau mugikorra gabe geratzeko fobia da. Beldur zara mugikorra itzaltzea ustekabez, ezin zara mugikorrak gabe irten etxetik. Sekulako dependentsia duzu harengan.

Hirugarren ondorioa mugikorrarekin denbora asko pasatzeagatik sortutako entzumen faltarena da. Sarritan, aurikularrak jartzen ditugu tokietan isolatuta

sentitzeko. Bolumen oso altuan entzuten ditugu gauzak, beraz, geroz eta arazo gehiago edukiko ditugu entzumenean etorkizun batera begiratuta.

Laugarren arazoa depresioa edukitzea da. Oso arazo ohikoa da gaur egungo gizartean baina ez zaio ematen behar duen garrantzirik. Gehienetan sare sozialei esker izaten da, baina beste hainbat faktore daude. Geure burua besteenarekin alderatzen dugu, beraz, hor hasten gara gure autoestimua jaisten. Depresioa edukitzearen beste faktore bat norbaiten sentimenduak guri transferitzea da, hau da, norbaitek depresioa badu eta denbora guztian triste eta gogorik gabe baldin badago, azkenean geu ere egongo gara triste eta gogorik gabe.

Azaltzen den azken aurreko arazoa Tunel Karpianoaren sindromea da. Sindrome hau eskua posizio ez egoki batean mantentzeagatik sortzen da. Ordenagailuko sagua gaizki erabiltzearen ondorioa izan daiteke, edota eskumuturreko presio jarraituaren ondorioz sorrarazi daiteke. Honek mina sorraraz diezazuke eskuetan edo hatzetan.

Azken arazoa “WhatsAppitis”-a da. Arazo hau mugikorraren erabilera abusiboaren ondorioz sortzen da. Hatzetako tendoiak handitu egiten dira hainbeste mezu bidali ondoren. Hoberena espezialista batengana joatea da zure arazoa egoki tratatzeko.

Beraz ikus dezakegu teknologiaren erabilera neurrigabeak hainbat arazo ahal dizkigula ekarri, beraz kontuz ibili behar gara.

TEKNOLOGIAK SORTUTAKO ATZERAPENAK

Zer da atzerapena? → Hainbat atzerapen mota daudela esan dezakegu baina guk zehazki atzerapen moralaz hitz egingo dugu. Hasteko, atzerapena zibilizazioaren edo kulturaren garapen-eskasia edo, pertsona baten garapen fisiko edo intelektualaren alderdiren batean akatsak izatea da. Eta morala berriz, gizarte bateko pertsonen banakako eta gizarteko jokabideak balioztatze iritzi eta arauen multzoa da.

Atzerapen morala egoki definitzeko BBC news-eko aldizkarian oinarritu gara. Artikulu honek, Teknologia eragindako giza degradazioak muga garrantzitsu batzuk gainditu ditu, gure lana egiteko aukeratu dugun gaiari buruz hitz egiten du. Bereziki, teknologia gudan sortzen dituen atzerapen moralei buruz.

Hasteko, artikuluan dio teknologia gure gaitasunak noiz gaindituko zituen hainbeste eztabaidatu eta gelditzeko zer egin pentsatzen geundela, ez ginela ohartu makinak gure ahuleziak ezagutzera bideratuta zeudela, eta jadanik, hauek ezagutzea lortu dutela. Hau da, gaur egun, makinek gutaz behar duten informazio guztia eskuratzea lortu dute, eta hau gure bizitzan gure ekintzak kontrolatzeko eta

beraiek nahi dutena egitera bultzatzeko erabiltzen ari dira, gure pentsamenduak irakurriz.

Honen adibide ezin hobe bat arretaren ekonomia edo "economia de la atención" dela esaten du artikuluak. Enpresei oso erraza egiten zaie guri buruzko profilak eratzea sare sozialetan partekatzen dugun informazioaren arabera, eta informazio hori iragarki-egileekin partekatzen dute. Negozio-eredu horren ondorioz, gure arreta ezinbestekoa bihurtzen da, baina, ez da gure interesetan oinarritzen, iragarleen interesetan baizik.

Bestalde, "giza degradazioak" muga garrantzitsu batzuk gainditu dituela eta horregatik kezkatzen hasiak garela diote. Enpresek eta beraien teknologiek notifikazioen bidez, gure arreta bahitzen saiatzen direla ohartzen hasiak gara. Eta horren erruz jada ez dakigu zer den erreala eta zer ez. Horren adibide dira deepfakeak, errealak ematen duten pertsonen egindako bideoak, adimen artifizialarekin egindakoak dira eta horren erruz ez dakigu bideoetan gertatzen dena errealitatean gertatu den.

Hainbeste aurrerapenekin geure buruaren bertsiorik txarrena bihurtu gara. Teknologia aldatu egiten gaituelako, eta hori etengabe eta geroz eta gehiago gertatzen da, sare sozialek prozesu hori errazten dutelako. Gure garun-zurtoinaren hondoraino iristeko lasterketa bat da, enpresena, eta gero eta geldialdi gutxiago, gogoeta gutxiago eta meditazio gutxiago egiten ditugu, denbora guztian erreakzionatzen ari garelako. eta horregatik geroz eta humore aldaketa gehiago ditugu.

Azkenik, artikuluan beraien ikuspuntua aipatzen dute: "Guk zerbait ziklikotzat deskribatzen dugu: gure makinak hobetu eta eguneratu ahala, gizakiak degradatu egin ditugu. Eta alderantziz izan behar luke. Une jakin batean ahuldu egin ginen, eta orain teknologia gure ahuleziez baliatzeko erabil daiteke eta jadanik "Jatorrizko ume digitalak" gurasoak baino adimen-koefiziente baxuagoa duten lehen haurrak dira". (Tristan Harris eta Randima Fernando)

Horrez gain, gaur egungo teknologiari erreparatuz, esan dezakegu teknologiaren ondorioz "arriskuan" bizi garela. Adibidez, denok ezagutzen ditugu sare sozialak eta egunero milaka orduz egoten gara hauen barruan. Sare sozial batean kontu bat egitean kontrolatuta gaude, gure datuak gordeta daude eta gainera gure bizitza bertan zabaltzen dugu; nor garen, non gauden, zer egiten ari garen momentu oro... Aplikazio hauen erruz, edozeinek jakin dezake gutaz, gu pertsonalki ezagutu gabe. Ez gara benetan ohartzen zenbat informazio dakien jendeak gure inguruan. Honek, azken finean intimitatea ez edukitzera behartzen gaitu eta intimitate ezak askatasuna ez izatera eramaten gaitu, hau da, teknologia esklabo gisa jarduten dugu txotxongiloak bagina bezala.

METODOLOGIA

Gure ikerketa aurrera eramateko, jendeari (adin-guztietako pertsonak) galdetegi bat pasatzea erabaki dugu, beraien iritzien bitartez ondorio batera iristeko.

→ **DISEINUA**

- Galdetegiari dagokionez, 3 atalez osatuta dago baina horien aurretik, ikerketari buruzko informazioa ageri da paragrafo labur batean. Hau bi hizkuntzetan dago (euskaraz eta gaztelaniaz), jendeak zertarako egingo duen jakiteko.
- Lehenengo atalean galdera sozioekonomikoak (adina, sexua...) ageri dira. Bigarrenean aldiz, teknologiaren erabilerari buruzko galderak daude, eta hirugarrenean berriz gure hipotesia deuseztatzeko edo baieztatzeko galderak aurkitu daitezke.
- Galdera motei dagokienez, lehenengo atalean galdera itxiak eta irekiak ditugu. Era berean, bigarren atalean ere galdera mota berdinak erabili ditugu. Baina hirugarrenean berriz, likert eskala erabili dugu galderen erantzunak jasotzeko.


→ **PROZEDURA**

- Prozedurari dagokionez, galdetegia sortu ondoren, erantzunak jasotzeko hainbat metodo erabili ditugu, informazio zehatzagoa izan dadin.
- Alde batetik, gure ikastetxeko beste ikasle eta irakasleei bidali diegu gmail bitartez. Bestetik, gure sare sozialen bitartez jendeari galdetegia egiteko eskatu diegu galdetegiaren link-a jarritz. Azkenik, gure familiako kideei eta gure herriko biztanleei pertsonalki (ahoz) galdetu diegu, hau da, beraiei galderak egin eta guk bete dugu galdetegia beraien erantzunekin, askok ez bait dute sare sozialik.
- Galdetegiaren erantzunak, 2022ko martxoaren azken astean jaso genituen, eta hauek Espainiako eta zehazki Euskal Herriko erantzunak izan ziren.


GALDETEGIAREN EMAITZAK

Galdera sozioekonomikoei dagokienez:


1- Sexua/Sexo
71 erantzun




2- Adina/Edad
71 erantzun



3- Nungoa zara?/ ¿ De dónde eres?




4- Ikaskuntzak / Estudios
71 erantzun



Teknologiaren erabilerari dagokionez:


5- Zenbat orduz erabiltzen dituzu gailu elektronikoak egunean?/¿Cuántas horas utilizas los aparatos electrónicos al día?

71 erantzun




6- Aisialdian zer egiten duzu normalean? / ¿Qué sueles hacer en tu tiempo libre?

71 erantzun




7- Teknologia gehiegi erabiltzen duzula uste duzu? / ¿Crees que abusas de la tecnología?

71 erantzun



9- Teknologia ekarri ditzakeen onurak kalteak baino handiagoak direla uste al duzu?/¿Crees que los beneficios que procura la tecnología son mayores que daños los que produce ?


71 erantzun



Hipotesiarekin lotutakoak:


10- Teknologia berrien erabilera masiboak gizartean atzerapena ekarriko du / El abuso de las nuevas tecnologías traerá un atraso en nuestra sociedad

71 erantzun




11- Teknologiak arazoak sor ditzake (lan arloan, ikasketa arloan, aisialdian...)/ La tecnología puede crear problemas (en el trabajo, los estudios, tiempo libre...)

71 erantzun




12- Teknologia gabe bizi naiteke/ Puedo vivir sin la tecnología

71 erantzun




13- Teknologiari erabilera egoki bat ematen zaio/ A la tecnología se le da un uso adecuado


71 erantzun




14- Ezin dut lana egin teknologiarik gabe / No puedo trabajar sin la tecnología
71 erantzun



15- Nire etorkizuna arriskuan ikusten dut / Veo mi futuro en peligro
71 erantzun




16- Teknologiarekiko dependentzia handia dut / Soy muy dependiente de la tecnología
71 erantzun



ONDORIOAK


Galdetegia bidali eta gero, 71 erantzun jaso ditugu eta gehienak Euskal Herrikoak izan dira, bereziki gure herrietakoak (Urretxu - Zumarraga). Gure ondorioak ateratzeko hiru grafiko aukeratu ditugu eta horietan oinarritu gara:

10- Teknologia berrien erabilera masiboak gizartean atzerapena ekarriko du / El abuso de las nuevas tecnologías traerá un atraso en nuestra sociedad
71 erantzun




Hasteko, lehenengo grafiko honetan gure hipotesiari buruzko galdera bat egin genuen, esaldiarekin haien adostasun maila esan zezaten. Kontuan harturik 1 erabat desadostasuna dela eta 5 erabat ados, ikus daiteke pertsona gehienek (%39,4) ez daudela ziur etorkizuna horrela izango denik. Hala ere, galdetegian parte hartu duten besteetatik, gehienek ados (%23,9) edo erabat ados (%14,1) daudela erantzun dute.

11- Teknologia arazoak sor ditzake (lan arloan, ikasketa arloan, aisialdian...)/ La tecnología puede crear problemas (en el trabajo, los estudios, tiempo libre...)
71 erantzun



Bestalde, grafiko honetan ea teknologia arazoak sor ditzakeen galdetu genuen, eta garbi ikusten da pertsona gehienak ados zeudela esaldiarekin eta inor ez zegoela erabat desadostasuna. Gainera, galdera honetan ados (%39,4) eta erabat ados (%23,9) zeuden pertsonen maila ez zekitenen maila (%29,6) baino handiagoa da.

13- Teknologiari erabilera egoki bat ematen zaio/ A la tecnología se le da un uso adecuado
71 erantzun



Azkenik, grafikoko erantzunak konparatuz ikusi daiteke, gehienek teknologiari erabilera desagokia ematen diotela (%36,6). Haatik, esaldiarekin desados daudenen eta ez dakitenen (%33,8) artean ez dago aldaketa nabarmenik. Aipatzekoa da, bi hauekin alderatuz ados(%21,1) / erabat ados (%2,8) daudenen ehunekoa erabat txikiagoa dela.

Hiru grafikoaren interpretazioa kontuan izanda ondorioztatu dezakegu teknologiaren erabilera desagokiaren eraginez teknologiak gizartean kalteak eta arazoak ekarriko dituela eta horrek azken finean gizartean atzerapena ekarriko du.

HIPOTESIA BERRESTEN

Ikerketa bukatu ondoren, hau da, informazioa bilatu eta galdetegiaren emaitzak jaso eta aztertu ondoren, gure hipotesiarekin (teknologia berrien erabilera masiboak gizartean atzerapena ekarriko du) bat egoten jarraitzen dugula esan genezake.

BIBLIOGRAFIA

- (d.g*) *Los tipos de tecnología más representativos que debes conocer.* Berreskuratua:
<https://www.universidadviu.com/es/actualidad/nuestros-expertos/los-tipos-de-tecnologia-mas-representativos-que-debes-conocer>
- (2017). *Los países que tienen más robots por cada trabajador son los que disfrutan de las tasas de paro más bajas.* Berreskuratua:
<https://www.theeconomyjournal.com/texto-diario/mostrar/595094/paises-tien-en-robots-cada-trabajador-disfrutan-tasas-paro-bajas>
- (2019). *Top 10 de las tecnologías que despuntarán en 2020.* Berreskuratua:
<https://www.syntonize.com/2020-top-10-tecnologias/>
- (2021). *¿Las redes sociales causan depresión? Verdadero o falso.* Berreskuratua:
<https://saposyprincesas.elmundo.es/consejos/recomendaciones-tecnologia/redes-sociales-depresion/>
- Blasco, L. (2020). «*La degradación humana causada por la tecnología ha sobrepasado algunos límites importantes*». Berreskuratua:
<https://www.bbc.com/mundo/noticias-54569277>
- Driscoll, M. (1997). *Nuevas tecnologías y su impacto en la educación del futuro.* Berreskuratua:
<http://redae.uc.cl/index.php/pel/article/view/24589>
- Efe, R. (2020). *Los peligros de la adicción al móvil en los niños.* Berreskuratua:
<https://www.noticiasdenavarra.com/actualidad/sociedad/2020/06/16/peligros-adiccion-movil-ninos/1055053.html>
- Elheraldo.Co, R. (2016). *Seis problemas comunes por abuso de la tecnología.* Berreskuratua:
<https://www.elheraldo.co/tendencias/seis-problemas-comunes-por-abuso-de-la-tecnologia-149166>
- Herrera, S. (2014). *2001:Odisea al espacio.* Berreskuratua:
<https://www.youtube.com/watch?v=yZ0qJ1KngWg>

- My Spanish Tutor / GCSE & A level .(2018) . *Adictos a las tecnologías*. Berreskuratua:
<https://www.youtube.com/watch?v=IOoLmGcnBfUb>

- Penalva, J. (2019). *Qué es WiFi 6 y por qué va a mejorar tu red WiFi de casa (o cuando te conectes a una pública)*. Berreskuratua:
<https://www.xataka.com/especiales/que-wifi-6-que-va-a-mejorar-tu-red-wifi-casa-cuando-te-conectes-a-publica>

- Pinto, J. S. G. (2015). *Problemas y beneficios de las nuevas tecnologías*. Berreskuratua:
<https://www.gestiopolis.com/problemas-beneficios-nuevas-tecnologias/>

- Stalman, A. (2018). *La tecnología entre el bien y el mal*. Berreskuratua:
<https://andystalman.com/tecnologia/>

- Wikipedia. (2020) 5G. Berreskuratua:
<https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=5G&oldid=8195761>

- *d.g → data gabea